

ZER
ALDIZKARIA

426. zenbakia
2016 LORAILLA

Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

KiLi-KiLi

EUSKERA POZGARRI

Zenbat egin eta alegin, alkarrekin... kili-kilika

**Kili-Kilik 50 urte
musutruk**



1966
2016

ERAKUSKETA:
martxoaren 18tik ekainaren 26ra
Bilboko **EUSKAL MUSEOAN**
Unamuno plaza, 4



Kristobal Kolon, Nafarroako
IVn Karlos erregearen
Semea izan ote zan? (XI)

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2015-2016 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Kili-Kili

EUSKERA POZGARRI

Zenbat egin eta ahalegin, alkarrekin... kili-kilika



1966
2016

Kili-Kili mutiko bat da, San Anton zubiaren ondoan jaioa. Orrez ganera, aldizkari bat da, umeei euskera ikasteko eta euskereagaz gozatzeko asmatua.



EV/KEPAZALEAK

Sarrera

XX. mendearen erdialdean, euskal kulturaren aldeko alkarte, ekintza eta talde asko egin ziran. Leenengo ikastolak sortzeko asierako pausoak orduan emon ziran, dantza, mendi eta kantu taldeak ugari sortu ziran, euskera ikasteko gau-eskolak, metodoak eta saioak ordukoak dira.

Susperraldi orren erdian jaio zan Kili-Kili San Antonen 1966an. San Anton gun e bizi-bizia izan zan giro orretan, Don Klaudio Gallastegi



ango abade zala. Katekesiko umeak, dantza-taldea, abesbatza, euskerako mezea... daren sorlekua eta babesleku San Anton izan zan.

Katekesiko ekintzen barruan asi ziran Kili-Kili izeneko fotokopiak ateraten, Jose Anto-


nio Retolaza bertan abade egoala. Fotokopia orreetan, **i** letraren puntuak laguntzaileak eurek margotzen ebezan gorritz. Gañerako marrazkiak Jose Antoniorenak dira. Orriotan euren ekintzen barri emoten eben, otoitzak noiz eta non izango ziran iragarri, eskursiñoak egingo zirala aurreratu...



Kili-Kiliren jaiotza

Or agiri da Kili-Kili arrautzatik jaioten, umea dala, umeen lagun. Arrera ona euki eban eta, ainbeste zabaldu zan ze, agintariek zarratu gura izan eben.

Mutikoa gaixorik agertu zan ale baten, sendabide bakarra umeen gutunak dirala esanez. Zenbat gutun artu eban orduan ezin da jakin be.






Gutunotan ikusi eban Jose Antonio Retolazak ume euskaldunek, berbaz bai, baña idazten ez ekiela eta non ikasirik be ez eukiela.

Jarduerak


Euskerazaleak alkartearen lege-babesagaz aurrera egin eban, eta beste era bateko lanak egiten asi. *Lan ta Lan* koadernoak alfabetatzeko metodo bat dira. Umeez etxean koaderno artu, bakotxak bere kontura bete, eta Bilbora bialtzen eben zuzentzeko. Tartean umeez gutun bidez Kili-Kiligaz artu-emon zuzena eukiten eben.

Baña ikastea bakarrik ez zan elburua. *Euskera pozgarri* leloak erakusten dauenez, euskeraz

POZGARRI



50 urte
1966-2016



bizi, eta pozik, alai bizi eta gozatzea; gozatuz ikastea; orixe zan elburua.

Sariketen eta leiaketen bidez, era askotako sariak irabazten ebezan umeek: eskursiñorako billetea, liburua, ipuiña, jolasa... Umeek alkar ezagutzeko eskursinoak, jaialdiak, txokolatadak eta abar asko egiten ebezan.

Eta olan, apurka-apurka, Bilbon San Antonen asitakoa igarri barik erri guztietara zabaldu zan. Laguntzaile-sare ikaragarria eratu zan, eta ekintzak be asko ugaritu ziran: Kili-Kili egunak, kili-irratia, kili-jaiak, argitalpen geiago...

Lan ta Lan koadernoetatik aurrera, Lander Gallastegiren estetika agiri-agirikoa da. Ma-





rrazkiak, koloreak, estiloa oso bereziak dauz, Kili-Kili mutikoagaz bereala identifikatzeko modukoa da. Marrazkilari ezin ohea da, euskal estetika berezia dario bere lanari.

Bizkaitik beste lurraldeetara zabaldu orduan, euskerea be egokitu egiten dau. Bizkaieraz, gipuzkeraz eta lapurteraz argitaratzen zan aldi berean.

Leenengo Kili-Kili Eguna Bilbon 1977an egin zan. Orduan ez zan bape erraza ainbeste jente ospakizun baten inguruan batzea, baña orduko egunkarietan ikustea baño ez dago zelango oiartzuna artu eban konturatuteko. Aren ostean beste batzuk be etorri ziran, Euskalerrri osotik etorritako euskaldunak batzeko jai-egunak.



Bilbokoa ospatu orduan, aldizkariak formatu barria aurkeztu eban, komiki erara. Orretan be naiko barritzaila izan zan. Gañerako izkuntzetan umeek irakurten ebezan eta ezagun ebezan pertsonaiak euskeraz be eukitea zan elburua: Asterix eta Obelix, Gillen Tell, Pantera Gorrixa, Mortadelo eta Filemon...

18.000 arpidedun izatera eldu zan Kili-Kili. Zenbat mila karta artu eta erantzun ete eban. Aldizkarietan ainbat dagoz argitaratuta.

Kili-irratia be egon zan 80ko amarkandan asita. Sintonia berenberetikoa euki eban, kilikilitar guztien ereserkia. Bilboko Erri Irratian asi zan, baña Bizkaian ezeze, Arrate irratian, Euskalerria irratian (Iruñea), Gure Irratian (Lapurdi) eta Radio Vitoria (Gasteizen) be zabalzen ziran saioak. Olangoetan umeek eurek zuzenean parte artzen eben, alkarrizketak egiñaz, leiaketetan parte artuaz...

MUSUTRUK

50 urte ospatzen

2016an 50 urte beteten dira Kili-Kili leenengoz argitaratu zanetik. Proiektuaren asmatzaillea eta arima Jose Antonio Retolaza izan da, Lander Gallastegigaz batera. A ta guzti be, laguntzaille-sare ikaragarria euki dau, diruz naiz bearren lagundu deusiena. Proiektu bat edo aldizkari bat baño geiago mobimentu bat izan dala esan daiteke. Berrogeta amar urteotan zenbat ume alfabetatu eta euskaldundu ez ete dauz, beti euskalduntasuna, euskeraz berba egitea, pozgarrizat zabalduz. Ikasi jolastuz, baña norberaren izkuntzari merezidu dauen lekua eta estatusa emonda.







Urte guztietako ibilbidearen barri emoteko, Bilboko Euskal Museoan erakusketa bat egin dabe Labayru Fundazioak eta Euskal Museoak berak Bilboko Udalaren laguntasunagaz. Babesle izan dira Kili-Kili eta Euskerazaleak alkarteak. Or dagoz ikusgai Kili-Kiliren aibat ekintza eta jarduera, zenbat laguntzaille izan dauzan, umeen parte artzea, argitalpenak eta produktuak...

Erakusketa ekainaren 26ra arte dago ikusgai Bilbon. Orrezez gañera, argitalpen baten batu dabez gaiok, gerorako eskura geratu daitezzen.

Zorionak!

Euskerazale batek



Garai bateko baserria

- 1.- Bertso-kantari atera noa entzun arreba ta anai, garai bateko baserri ura arturik ortarako gai. Aurrerapenik ez gendun baiño ala bizi giñan alai; bizeitza ura amaitu zan da oitura asko ere bai.
- 2.- Garai artako baserritarrak geienak giñan maizterrak, gosse-egarririk ez gendun izan geure lanari eskerrak. Arto, babarrun, gari, patata, da garbi mendi bazterrak; gaztañaditan berriz gaztaña da perretxiku ederrak.
- 3.- Eskolarik ez, gutxi ikusiak, bagendun milla aitzaki, baiña zulo asko estalitzeko baserritarra izaki. Urteko errenta osatzen ere saiatu bear galanki; zenbatentzako egiten gendun Jainkoak bakarrik daki.
- 4.- Txerria iltzen genduanen utsik egin gabe beintzat, puskik onenak apaiz eta erriko jaun geientzat. Txanpon batzuek izango ziran mutiko emalleentzat; "Odolkiak ordaiñez" esaerak etzun balio aientzat.
- 5.- Baserritarren borondatea nunnai ezagutzen zanez, besterentzako biotz biguna naiz etxerako izan ez. Zerua irabazitzen zala esku zabala izanez; praile-mojantzat arrautz preskoak, gerok sardin-zarra janez.
- 6.- Kaletar askok jai-egunetan jokera mendi aldera, baserrietan egingo zuten sagardo aren galdera. Txarroa artuta amaika aldiz joanak giñan kupelera; utsaren truke tragoa pranko emandakoak gu gera.
- 7.- Arantzazuko eliz berria egin bear zutenean, albiste ori geientsuenak jaso genduan onean. Limosna ederra ate ondora prailea etorri zanean; geure baserria eduki arren zutik ezin egonean.
- 8.- Jakiten gendun ijitoak'e nundikan nora zabilten, "Etxekoandre limosnatxo bat" sarritan gendun aditzen. Aukeran ezer baldin bazegon etzuten noski utzitzen; askorentzako jarduten giñan oillasko ederrak azitzen.


9.- Beste eske bat indartsu dago
gure EuskalERRI onetan,
Santa Agedaz eta San Juan ez
edo berdin Gabonetan.
Arrera berdiña etzan izango
noski baserri danetan;
soiñu ta koplak pesta jartzen zan
da atari geienetan.

10.- Amar-amabi seme-alaba
ziran baserri. askotan,
bular gozoak zurrupatuaz
ama onaren besotan.
Da seaskari eragitean
kantuan edo bertsotan;
era ortako alaitasunik
ez da gaurko gurasotan.

11.- EuskalERRIAN ezaguna da
Iparragirren kantua,
mundu guztira zabalduzko
euskaldunaren frutua,
Jainkoak jakin zenbat lekutan
dagon sakabanatua;
lengo baserria nik juzkatzen det
arbola bedeinkatua.

12.- Baserritarrak ez gera izan
pekaturikan gabeak,
danan erruki izan dezala
zeru ta lurren Jabeak.
Mundu berriak aldatu ditu
oiturak eta legeak;
gaur ez daukate lengo itzalik
baserrik eta fedeak.

Txomin Garmendia



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XI)

Gaztelako I Isabel erregiñ katolikua.

Gaztelako II In Juan erregea eta bere lenengo emazte Aragoiko Mariaren artetik, Enrike, gero errege lez IVn Enrike “Antxua” ez izenarekin ezagutuko zana jaio zan

1.451ean Jorraillaren eguen guren´eko 22an, Zelaiko Medinaren Andienetarik Dorreak egon ziran Madrigaleko errian jaio zan I Isabel, aita Gaztelako II In Juan eta bigarren ezkonduta Portugaleko Abiz´tar Isabel amaren bidetik. Eta 1.453ko urte bi beranduago, bere anai Alfonso jaio zan.

1.454ko urtean Isabelen aita II In Juan Gaztelako erregea il zanean, Isabel bere ama Abiz´tar Isabel eta bere anai Alfonsogaz Arebaloko errira aldatu ziran.

1.461eko urtean IVn Enrike Gaztelako erregeak aginduta, bere ugazarrreba Isabel eta bere ugazanai Alfonso, Segobiako gortera eroan ebazan, denbora orreitan IVn Enrike eta bere emazte Portugaleko Juanaren alaba jaioteko egon zala.

Eme-ume oneri gero “La Beltraneja” deituko eutsoen, IVn Enrike´ren antxutasunean, bere emazteak, Beltran



de las Kuebas´eko laguntzarekin euki ebalako alaba ori, eta ortik ipini eutsoen Juana´ri “La Beltraneja” izen ori.

1.462ko urtean IVn Enrike Gaztelako erregearen alaba “La Beltranejatar Juana” jaio zan, bere jaiotasuna legezatasunezko zalantzan ipini zana, Kobatar Beltranen alaba zala gortean esaten zalako, eta orregaitik esaten eutsoen “Juana la Beltraneja”.

1.466an IVn Enrikek, Isabel 16 urte euki zituzela, Patxekotar Juanen anai ta 43 urte euki zituzen Kalatrabako Jirontar Pedrokekin ezkondu gura eben, baiña Isabelengana joan zanean ezkontzeko, bidetik doala, este muturreko gaixoak⁽¹⁾ jota il zan.

(1)Este muturreko gaixoa = *ataque de apendicitis*.



1.468ko urtean Gaztelaren gorteko gizon andien norkeri bidetik, aurkan ipini zituzen IVn Enrike erregea ta bere ugaz anai Alfonso, eta urte onetan Alfonso pozoituta il eben arazo orreik amaitu zitezzen.

1.468an Iraillaren 19ko urtean, gauza oneik olan ibili arren, Isabelek ez eban artu gura erregiñaren aginterik, arik eta bere ugaz anaia IVn Enrike bizirik egon zan bitartean, baiña bere ugaz anai IVn Enrikeren eskutik “Toros de Gizandoko ongunean” lortu ebena, Asturiaseko printzea izendatzea zan, Gaztelako errege/erregiña izateko bear bearrezkoa izan zana, eta eztabaida oneitan Gaztelako gortekoak, bere loba Juana La Beltranejaren aurretik ipini eben erregetzaren ondorengotasunean.

Isabel emendik aurrera Okañako Urian, Patxekotar Juanen etxe batera bizitzen joan zan.

Isabel iru urte euki zituzenetik, Nafarroa ta Aragoiko errege IIn Juanen alegiñagaitik, bere seme Fernandogaz ezkontzako itzarmendukoa zan, eta Gaztelako errege IVn Enrikek itzarmen ori apurtuta, I Isabelen lengusua zan Nafarroako IVn Karlosegaz itzarmendu eban.

Ez ziran aurrera joan IVn Enrikek euki zituzen asmoak, Nafar ta Aragoiko errege IIn Juanek egin ebezan aurkako alegiñak gogorrak izan zirelako, eta beste leku batera begituta IVn Enrikek, Portugaleko Vn Alfonsoz ezkondu gura eban, baiña Isabelek ikusita euren artean adiñeko aldia 20 urtekoa zala, berak ezereztu eban ezkontza ori.

Nafarroa eta Aragoiko errege IIn Juanek ostera saiatzen da Fernando bere seme ta Isabel ezkontzen, baiña senidezko eragozpen andi bat euki eben biak, euren aititek Antekerako Fernando eta Gaztelako IIIIn Enrike, anaiak ziralako.

Aragoiko Fernando, Trastamara´tarrren ondorengotasunean mutil bakarra izan zalako, “La Beltraneja” eta Isabelen aurkako estabidak nastatu gurean, bera be agertu zan Gaztelako erregetzaren errege-nai lez, Portugaleko Alfonso erregeagaz ezkondu egon zan “La Beltraneja”tar Juanaren aurka, baiña ez eutsoen onartu eta orgeratu ziran bere alegiñak.

Eragozpen orren bitartez ezkontza au aurrera eroateko, IIn Pio Aita Santuaren bulda bear ebela ta onek, Frantzia, Portugal eta Gaztelako erregetzakin etsaitasun aundiak sortuko ziralakoan siñatu gura ezean agertuta, gero Aita Santua VIIn Alenjandro izenagaz izango zan Borgiatar Rodrigo bialdu eban arazo orreik konpontzeko.

Moruen aurka egiten ebelako eta beartasun bidez agertuko ziran lanagaitik, eleiztar onein atsegintasunezkoa izan zalako eskontza au, Karrillo de Akuñatar Alfonso Tolledokoartx-apezpiku edo gongotzaiñak, IIn Pio baiño ariñagoko IIn Juan Aita Santuak 1.464ko urtean atara eban bulda, berak eskerniatutako antz baten agertu eban, eta or

inguruan egon ziran guztiak, zer gertatzen zana danak jakin arren, ontzat artu eben, eta Isabel ta Fernandoren artean egon ziran senidetasunaren debekatuzko lege guztiak ezereztuta geratu ziran.

1.469an Epaillaren 5ean Isabelek baietza emon ondoren, Zerberako Urian siñatu ziran ezkontzako elkar-go orreik.

1.469ko Maiatzan Isabelek bere anai Alfonsoren illobia ikustera joan zalakoan, bildurrez Okañara iges egin eban, Patxekotar Juanen babesera.

1.469an Urrillaren 19an, Fernando igeslari baten antzera, iñork jakin barrik Balladolizera joanda, Biberotar Juanen jauregian ezkondu ziran 19 urtegaz Isabel, eta Fernando 18 urte euki zituzenean, IVn Enrike, I Isabelen ugazneba oso asarre agertuta.



Ezkontza onein sare arteko azpikeriak ez eben beste asmorik euki, Isabel Portugaleko Vn Pedrorrekin ezkondu, IVn Enrikeren alaba Juana “La Beltraneja”, Portugaleko Vn Pedro ondorengo seme Juanegaz ezkontzea baiño, Portugal eta Gaztelako lurraldeak alkartzeko.

Isabelek ez eban ezkondu gura Pedro onegaz len esan dogun lez, IVn Enrikek Frantziko errege XIn Luisen anai Guyenako Dukeagaz ezkontzeko antolamenduak eginda.

1.470eko urtean egin ziran Medinako Zelaietan itzarmenduzko ezkontza oneik, baiña ez eben ezertxo be lortu, frantzez Guyenako Duke au baleiteke 1.472ko urtean, iñork ez dakien nortzugaitik, pozoituta il zalako.

Eta 1.471ko Abenduaren lenengo eguna baiño ariñautik, IVn Enrikek Isabelen aurkako lanean ibilita, Borgiatar Rodrigok agertu eban buldako legearen indarra ezerezean edo ta ebagita itxi ebalako, Toledoko artx-apezpiku Karrilloren lan bitartez, IVn Sixto Aita Santuak baieztu eban barriz ezkontza ori urte onetan, Simankasen agertu eban buldarekin.

1.474an Abenduko 12an IVn Enrike ilda, 13an koroatu eben gaztelarren Isabel erregeña lez, Gizandoko Zezenaren Urian *Eleizako aginduari bere menpetasun osoa siñatuz*, bere IVn Enrike ugaz anaiakin alkar-aditu ebezan baldintzakaz, eta indar andiko erregeña izan zan euki eben aolkularitzaren bitartez, askoren andikerizko eritziaren aurka, zentzu aundiz aurrera egin ebalako Amerikako lurraldeak argitan agertzeko be.

I Isabelek, oso osoan sinistu eutsozan Kolon´eri iñoz ikusi ez ziran itsas-osteko lurraldearen burupideak, bere aitorle ta aolkulari Talaberako Ernando lekaideari sinistu eutson lez, eta Kolon´tar Kristobal, senide lez be onartu eban.

Eta onarte ekarten dogu I Isabelen bizi kondaira, emendik aurrera Kolontar Kristobalegaz asten dalako biok euki eben adiskidetasunezko edesti ederra.

Mallorka ugartearen asierazko edesti ta Kolonen alditan bizi ziran jendearen jakituri ta nortasunezko zeregeñaren aurkezpena.

Mallorkaren ugarte, beste ugarte bi Ibiza eta Menorka erdian kokatuta dago, bere 3.625 Km karratuekin, itsas-bazterren inguruak 300 km. daukazela, Puig Mayor mendiaren goi-aldiak 1.500 metrorekin, eta Erdi Ugarte edo peninsulatik 25 leko⁽¹⁾ Bartzelonaren Ego-alderaiño dagozela.

(1) Leko = legua, que equivale a 5.572, 70metros.



524.980 biztanlekin, Palma bere Uri nagusiaren edertasunean, abelur-ikastetxe, zapataren langintza eta atzerrien txangoketaz, gaur bakez bizi diranak.

1.229ko urtean menperatu eban Mallorca Aragoiko I Jaime garaitzailleak eta 1.349ko urtean, IVn Pedro zeremoni-zaleak betiko lotu Aragoiko erregetzagaz.

XVn gizaldian Mallorkako Ugartea, Aragoiko lurraldea zan eta ez eban ezer ikusirik Gaztelako erreinuarekin, Kolon gaztelaniko gorteetara joaten zanean atzeritar bat izan bazan lez joaten zalako.

Mallorka Ugartean baleiteke urriñetik etortea itsasoko jakintzak eta mapagintzazko zaletasunak, K.a. 1.300 urte inguruan ejiptziarrak euren jakiturizko mailla audienean egonda, eta Greziarrak orduan ezagutzen zan mundu guztiko itsasoetatik asi ziranean ibiltzen, K.a. 1.000 urte gitxi gora-beran, Euskalerrian “Triku-Arri, eta eurak gaur “Talayots” esaten dautsoen jendekuntzatik datorrela esaten dabe batzuk.

Baiña Mallorkaren nortasunezko jakintza, ezin da ulertu Lull, edo Llull´tar Raimundo frantzizkotarra barik, eta kondaira luzea dalako, zati aundi baten

murriztuko dogu.

1.232ko urtean Mallorkaren Uri Nagusia dan Palman, gaur bere Kale Nagusiko 5n zenbakian egon zan etxean Jaio zan Llull´tar Ramon teologu, izkutu edo mistiku, olerkari, jakin-zale edo ta bizitzaren eraman-ona edo filosofu mallorkindar au, eta ainbeste jakituri euki ebalako “Irakasle Argitsua”ren ez izenagaz esagutzen eben danak, bera izan zalako Katalanezko izkera zentzuntasunduagaz batera geiago idatzi ebena.

200 liburu baiño geiago dagoz gaur latin, arabiar eta katalaneraz idatzita.

Llull´tar Ramon au, I Jaime Aragoiko erregearen zerbitzura sartu zan 14 urtegez morroi lez, bere seme Pedro ta Jaimegaz lagun eginda.

Ezan geldirik egoteko gizona, eta Aragoi ta Kataluña ikusteko beren denborak eukezan.

Gero ezkondu be egin zan seme bat eta alaba bat eukinda, baiña erlijioagaitik deituta, geiago gura eben Kristoren barriak zabaldu misiolari lez, eta ekintza orreitan aleginduko zan, garrantzi aundikoa izanda, gurutzada santu gora beran Vn Zelestino eta Vn Klemente Aita Santuaren bitartean egon ziran beste Aita Santuakaz.

1.270-1.272ko urteko bitartean Konpostelako Santiagotik erromes ibilita, Mallorkara joan zan eta Arabiar eta Latiña ikasi eban, “El Llibre de Contemplacio” arabieraz idatzi ebana eta ain omentsu zan “Ars Magna”, “Mestre” izena balio eutsona.

Ortik aurrera, bere idaz nagusi “Blanquerna” be idatzi eban.

1.295-1.296ko urte bitartean, bere beste idaz-lan garrantzi aundiko zana be idatzi eban, “L´Abre de Ciencia” katalanez.

1.295ko urtean Frantzizkotarren lekaidetxean sartu zan, eta siñezbagekoak eskolatzen emon ebazan bere denbora aundiak, bere adierazko idaz-lanak izten eutsoen bitartean.

1.302-1.307ko urte bitartean, “Liber de Fine” beste liburu bat idatzita.

1.312ko urtean Bienako Eleiz Batzar Nagusia amaitu zanean, ostera joaten da Mallorkara.

1.314ko urte erdi ingurutik, Afrikaren lurraldean Iparraldeko itsas-ertzearen Bujia Urian lurreratu-

ta, Tunezera joan zan mixiolari, eta itsas-ertzeko Bujiaren errira bigarrenez joanda, lenengo ostera egin eban antzera gogor arrikatu eban lez, oraingoan ez eban euki ainbesteko aldi onik eta 1.315eko urtean 83 urte eukezala, bertan, Bujiako errian il zan, gaur bere gorpuaren ondarrak, Mallorkako Palma Uri nagusiaren frantzizkotarren eleizan illobiratuta dagoz.

Berd eta Martorelltar Grabielek esaten dau, Llull´tar Raimundok itzi eutsoen ikerketako eta jakitunezko lan aundiak, oso garrantzi andikoak izan zirala itsas-araudietarako.


Llull´tar Raimundo onek, bere askotako liburuetan aipatzen dauz orduko itsas-eskutitz edo mapak, zelan izan ziran orduko itsakuntzarako⁽¹⁾ oiñarrisko gidariak.

Bere denboran sartu ziran itsas-ontziaren gidari izateko “Gabeko Astrolabio”⁽²⁾, euren iguzki-orratzakaz⁽³⁾ ta “Ipar Orratza”, berari emonda sarrera orren irabazpide ori, eta baita bi-orratzeko eres/neurkiña⁽⁴⁾ itsasoko-eskutitzetan aizeen sorrerazko aldi bitartekak neurtzeko.

Eta gaurko egunetan euren bitartez esan leikela, Llull´tar Raimundo bera izan zala orduan egon zan amesleri bakarra, borobiltasunezko mundu onetan, beste lurralde aundi batzuk be egon zirela asmatzeko, eta Mallorkan bere jakituri aundiagaz itsasoko-eskutitz edo mapa-gintzazko eskola ori sortu ebanak, Llull´tar berak esanda, 1.286ko urtearen baiño ariñautik asi zirala Mallorkako itsastarrak eskutitz orreik erabilten.

Ez gitxiago Kreskes judu-leiñukoak Ludi-mapagintzan egin ebenakaz.

(1) Itsakuntzarako = *profesión de marineria*. (2) Astrolabio = *izarren ibilketarako neurgaillua*. (3) Iguzki-orratz = *cuadrante para determinar la altura de los astros sobre el horizonte*. (4) Eres-neurkiña = *compàs*.



Jafuda´tar Kreskes, judu mapagille aundi bat zan, XIVn gizaldi erditik XVn gizaldiko lenengo erdiaren urte bitartean bizi zana.

Kreskesek ainbat katalan izkuntzazko Ludi-mapak egin eban, danetatik 1.375ean egin ebena bakarrik izanda geratzen dana, eta bera Parisen, Frantziko aberriaren liburutegian erakusten dabena.

Jafuda´tar Kreskes bere aitagaz batera kristautu zanean, Ribes´tar Jaume´ren izena artu eban.

1.327-1.330urte bitartean Mallorkan beragaitik eginda eta esagutzen dan itsas-eskutitz zarrena dana, Londreseko “British Museum”ean dago Add. Ms.25691 asi-izkiekin.

1.339an Dulzert´tar Anjelino siñatzaille zala, Mallorkan lenengo ezagutu ta siñatu zan itsas-eskutitza “Pariseko Aberriaren Liburutegian” erakusten da.

Eta lenengoz sartu ziran “Aize-Arrosak”⁽¹⁾ Katuluñan Jafuda ta Kreskes´tar Abrahamek egindako mapa-sortan sartu ziran⁽²⁾.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.015´eko urtean Epaila´ren 21´ean

(1) Aize-Arrosak = *rosa de los vientos*. (2) Mapa-sorta = *atlas Catalan*.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

8	1				5	3		
3			2	8				9
					1	6		
		2		3				1
	6						5	
5				9		4		
		5	6					
4				7	9			6
		9	1				7	4

4	7	2	3	5	1	9	8	6
6	1	5	9	7	8	3	2	4
8	3	4	6	2	9	5	7	1
2	6	4	8	7	1	3	5	9
3	5	9	1	4	2	8	6	7
5	2	7	8	4	1	6	3	9
9	6	8	4	1	2	7	5	3
7	4	2	5	3	6	8	9	1
2	9	7	3	4	1	6	8	5
3	5	6	2	8	7	1	4	9
8	1	4	9	6	5	3	2	7

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Abadiño San Blasetan,
neska zaarrak bentanetan
mutil zaarrak engaiñetan
Abadiño San Blasetan.

Begire nago, begire
Kamino bide barrire.
Noiz etorriko ete dan
nere maitia errire.

Abadiano